

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Thérèse Iratzoki

*Azkaine
Lapurdi (1935)*

Aurkibidea



Biografia



Thérèse Saint Pierre Luro, ezkonduz geroztik Thérèse Iratzoki. Baionan jaioa, Milafrangan bizi izan zen Azkainera ezkondu zen arte. Aita baionarra zuen, laboraria, eta ama doneztebearra, etxeko anderea. Zazpi senidetan lehena zen Thérèse. Dendaria (jostuna) izan da ogibidez. Baratzegintzan ere aritzen da. 24 urterekin ezkondu zen, [Adrien Iratzoki](#) zurginarekin. Lau seme-alaba izan zituzten (2 alaba eta 2 seme; Bernadette alaba elkarrizketan egon zen).

Zintak

ANE-010

- **Proiektua:** Lierni Elortzaren fondoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza Puiadena, Lierni - Iratzoki, Bernadette
- **Data:** 2020-02-28
- **Iraupena:** 39 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza Puiadena, Lierni
- **Emalea:** Elortza Puiadena, Lierni

Pasarteak

1. Gurasoak euskaldunak; seme-alabak frantsesez beti

- **Erref:** ANE-010/002
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:01:35. **Bukatu:** 00:03:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gurasoak euskaldunak izanik ere, frantsesez hitz egiten zuten seme-alabek eskolan, etxean... Amak asko sufritu zuen frantsesa ez jakiteagatik eta gustura zen "doike" frantsesez entzunik.

2. Ikasketak herriko eskolan, dendari (jostun) ikasi arte

- **Erref:** ANE-010/003
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:03:02. **Bukatu:** 00:05:31

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Lapurdiko lantegiak

Laburpena:

Ikasketak serorekin (mojekin) hasi zituen eta “matanta” (izeba) batekin ibili zen ondoren. Ez zen atsegina hura. Ondoren, lantegi batean dendari (jostun) ikasi zuen.

3. Jostun etxez etxe; lanaren prozesua eta zehaztasunak

- **Erref:** ANE-010/004
- **Iraupena:** 0:05:19. **Hasi:** 00:05:31. **Bukatu:** 00:10:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Non aritzen zen etxez etxe josten. Han pasatzen zuen astebete etxean bertan josten edota jantziak “arrimatzen” (konponketak egiten), “azpilzunak” (azpildura) eta “peazuak” (adabakia) ematen. Bere josteko makina erosi zuen eta josteko prozesua kontatzen du: patroiak egin, “kroxetakin” (orratza) eman, “fofilatu” (albaindu), aitzurrekin moztu... Oihal mota ezberdinak erabiliz. Ezkondu ondoren ere segitu zuen, etxekoentzat eta herrikoentzat.

4. Barazkiak, arrautzak eta arraina Baionako merkatuan saltzen zituen

- **Erref:** ANE-010/006
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:11:27. **Bukatu:** 00:15:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Barazkiak prestatu, lekak bereizi eta Baionako merkatura nola joaten zen barazkiz kargatua bizikletaz. Zubian jartzen zen Baionan. Aitak arrantzatutako arraina ere saltzen zuen. Nola eta zer arrantzatzen zuten; arrain mota ezberdin asko. Etxez etxe ere saltzen zuen. Ederrenak etxeko jabeari, bordariak (maizterrak) baitziren.

5. Trikotatzea gustuko

- **Erref:** ANE-010/008
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:15:32. **Bukatu:** 00:16:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak » Lapurdiko lantegiak

Laburpena:

Etxekoentzat trikotatzen (puntua egiten) du. Gustuko du neguan.

6. Etxe inguruko lanak: baratzea, loreak, usoak, oiloak...

- **Erref:** ANE-010/009
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:16:06. **Bukatu:** 00:17:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Baratzeko lanak: etxe ilar, tipula.... Usoak hazten ditu. Txitan zen oiloa azeriak eramane zionekoa.

7. Sukalde kontuak; oilo, oilar, uso prestaketa

- **Erref:** ANE-010/010
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:17:28. **Bukatu:** 00:18:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Sukaldean aritzea gustuko du, "coq au vin" (oilarra ardoarekin) edo oiloa, uso ttikiak labea... Hil, bipildu (lumatu) eta prestatu. Zopa eta saltsak prestatzea gustuko du, baina "pastizeria" (gozogintza) ez.

8. Zerri lanak: odolkia nola egin, "hura", pateak, gantxingorra...

- **Erref:** ANE-010/011
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:18:43. **Bukatu:** 00:23:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Zerri lanak kontatzen ditu. Odolkia nola egin, "Paté de Tête" (buruko haragia), pateak, gantxingorra, lukainka, "almia" (hirugiharra), xingarra (urdaiazpikoa), konfitak. Andoila: zer den azaltzen du. Haragi parte ezberdinak eta "legumak" (barazkiak) nahasirik egiten dituzte denak.

9. Txikitako jolasak: dantza, kanikak, "kroke"a...

- **Erref:** ANE-010/015
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:25:24. **Bukatu:** 00:26:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Txikitako jolasak: dantza, kanikak, "kroke"a, soka saltoa, "le xapio" (antxu txurraren antzekoa).

10. Eskola kontuak

- **Erref:** ANE-010/016
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:26:57. **Bukatu:** 00:27:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Eskolan neskak eta mutilak elkarrekin. Beti frantsesez. Gogoan dituen bi seroren (mojen) aipamena.

11. Bere ezkontza eguna kontatzen du

- **Erref:** ANE-010/017
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:27:41. **Bukatu:** 00:29:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

1958an ezkondu zen. Milafrangan aperitifa eta etxean festa. Arroparen berri ematen du.

12. Etxebizitza erreka ondoan

- **Erref:** ANE-010/019
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:29:51. **Bukatu:** 00:31:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua
- Natura » Fauna » Errekakoak

Laburpena:

Erreka ondoan bizi ziren eta barkua zuten garraio nagusi. Horri buruzko pasarteak.

13. Urik eta argindarrik ez etxean

- **Erref:** ANE-010/020
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:31:02. **Bukatu:** 00:32:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Errekakoak

Laburpena:

Egunero urketa (ur bila) barkuz eta oinez.

14. Kanpaina (baserri) lanak eta festa uztartuz

- **Erref:** ANE-010/021
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:32:25. **Bukatu:** 00:34:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

Baserri lanak aipatzen ditu: belar lana, arto zuritzea... Eta lanekin lotutako otordu onak, festa eta kantu giroa ere bai.

15. Senarrarekin eta hurrekin euskaraz berriz

- **Erref:** ANE-010/023
- **Iraupena:** 0:00:17. **Hasi:** 00:34:50. **Bukatu:** 00:35:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Senarrarekin elkartuz geroz, euskaraz egin izan dute haien artean. Seme-alabek ikas zezatela nahi izan zuten eta baita ongi lortu ere.

16. Etxean uholdeak bizi izan zituztenekoak

- **Erref:** ANE-010/024
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:35:07. **Bukatu:** 00:36:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna » Errekakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Jaiotetxean eta ezkonduz geroztik ere uholdeak bizi izan ditu. Baxerak hautsiak; josteko maxina hupatu zuten.

17. Antzerkia biziki maite zuen

- **Erref:** ANE-010/025
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:36:16. **Bukatu:** 00:36:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Antzerkia eskolan, frantses obrak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-09-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com